

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

# LUMI

*Jolasak*

6 zbk.

2005eko maiatzaren 8a



**L**umaneko kideak ume ziren garaian, ez zen apenas jostailurik. Hala ere, ez zuten aspertzeko denborarik izaten, irudimena landuz eurek asmatzen eta osatzen baitzituzten jolasak eta jostailuak.

Gehien-gehiena, txingoa, soka-saltoa eta tabaketa gustatzen zitzairen neskei, baita koxinaketa eta panpinekin ibiltzea ere. Mutilei, berriz, kanikak, txiba eta pilota, batez ere. Kartaketan, esku-jolasetan edo irudimenezko bestelako jolasetan ere igarotzen zuten denbora. "Barre asko egiten genuen eta edozein txorakeriarekin igarotzen genuen arratsaldea. Petrulean eseri eta

zenbat automobil pasatzen zen kontatzen ere aritzen ginen. Automobil horia eta beltza igarotzen bazen, zapiari lau korapilo egiten genizkion ertzetan, zorte ona emateko. Oso gutxi pasatzen ziren, ordea. Jostaketak asmatu egiten genituen. Beharra zegoen eta. Askotan hotzak-edo erdi kuzkurtuta geundela, zaharragoren bat etorri eta 'segi saltoka' edo 'korrika' esaten zigun. Beharko. Ez arroparik genuen, ez oinetakorik... Zer edo zer egin behar genuen berotzeko".

Zerrenda luzea osatu dugu garai hartako jolasekin. Jolastu nahi al duzu?

## BIXIKETAN, PANPINEKIN EDO GOITIBERAN?

Bixiketan edo dendaketan esaten zioten, bazkaria prestatzen edo jakiak saltzen jolasteari. Neskak ibiltzen ziren batik bat. Platera zaharrak eta eltze txikiak erabiltzen zituzten jolaserako. Jakiak irudikatzeke, hainbat belar edo lore hartzen zituzten. "Malma belarrak, lore arrosa ematen du. Lorea galtzean, gaztaren itxurako kozkorra geratzen da. Kozkor horrek, gazta irudikatzen zuen gure jolaseko dendan". Gainerakoan, hosto ezberdinak ere jartzen zituzten dendan salgai, "zegoenarekin, harrapatzen genuenarekin osatzen genuen denda". Panpinak, aurren-aurrenekoak, kartoizkoak izan ziren; "euriak harrapatuz gero, akabo. Aurpegiko margoa joan egiten zitzairen". Gainerakoan, trapuekin egiten zituzten panpinak. "Fabricación propia" dio Pellok. "Trapuekin egiten genituen muñekak. Beso, hanka eta guzti! Hankaren bat puskatuz



**Jabier Berasaluze**

*"Goitiberan, Amasako aldapatik behera jaisten ginen Villabonara"*

gero, beste trapuren bat jarri eta kitto!". Ez zuten oraingo panpinen antzera, barrerik edo negarrik egingo. Oraingoak baino maiteagoak ziren, hala ere. Panpinak egiten, ikasi ere egiten zuten garai hartan, "izugarriko ilusioarekin josten genituen muñekarentzako soinekoak edo jertseak. Aitzakia horrekin josten ikasten genuen. Muñekari bolantedun soinekoak egiten zizkionik ere

bazen, hara!". Garai hartan ez zen ez jostailuzko kotxerik, ez kamioirik, ez traktorerik... "Gurpilen bat edo biribilen bat topatzen bagenuen, askotan harekin ibiltzen ginen gustura, 'raaaaaaa' aurrera eta 'raaaaaaa' atzera". Gaztetan, goitiberak eraikitzen zituzten, "lau egur puska eta hiru errodamentu hartu eta, aurrera! Goitiberan, Amasako aldapatik behera jaisten ginen Villabonara. Askotan Salvadora papertegiaren atarian amaitzen genuen ibilbidea" dio Jabierrek. Berdura plazan lasterketak egiteko, patineteak ere eraikitzen zituzten gazteek. Kontu bitxiagorik ere bada, "Berdura plazaren ondoan, garbitokia zegoen garai batean. Herriko emakume ugari biltzen zen bertan. Garbitokiaz gain, putzua ere bazegoen ondoan eta txalupak egiten genituen egurraren eta sokaren laguntzaz, uretan ibiltzeko".

## TXOKOKETAN, PILOTA AIREAN

Mutilak gehixeago ibiltzen baziren ere, neska askok ere oso gogoko zuen pilotarekin jolastea. Eskolako errekreoan txokoka edo txokoketan jolasten zuten askotan. Eskuz aritzen zen lagun taldea. "Falta egiten zuena kanpora. Bukaerara bi lagun iristen ziren eta irabazten zuenak, bi puntu jasotzen zituen. Gainera, kale egiten zuenak, hurrengo txandan ere jolasean jarraitzen zuten". Eskolako errekreoetan nahiz bestela ere jolasten zuten txokoketan, "larunbatetan edo igandetan ere berdin ibiltzen ginen. Hogeit bat lagun elkartzeko ginen akaso plazan. Asko ginenez,

ezin genuen pilota partidarik jokatu, ondorioz, txokoketan ibiltzen ginen". Modu horretan, jende gehiagok hartzen zuen parte jolasean. Orduko pilotek ez zuten egungoekin zerikusirik, norberak egiten zuen bere pilota. "Geronek egiten genituen pilotak. Txori-mukia gereziendoei adarretan sortzen zaion kozkorra da, gomaren modukoa, bigun-biguna. Harekin bola egin eta amari, izebari edo amonari eskatutako hariarekin biltzen genuen. Botea izaten zuten pilota haiek" gogoratu dute barrezka. Beste batzuek, kortxoa erabiltzen zuten pilotaren oinarrian



eta hariarekin bakarrik pilotak egiten zituen ere bazen. Batzuek besteek baino zorte hobea zuten pilotak egiterakoan, "gure osabek larruzko mantalak erabiltzen zituzten sutegian lanerako. Haien mantal zaharrak

ebaki eta larrua josi izan nien nik pilotari. Halaxe, larruzko pilota!" dio Pellok. Garai hartan, ondo gogoan dute bai, hari zipritzinak zintzilik zituen pilota asko ikusten zen plazan. "Polita zen hura, bakoitzak berak

egindako pilota hartu eta, jolaseran!". Mari-txuren etxean, esponjazkoa izan zen, harizkoen ondoren, lehen pilota; "Amalluko Luzianok emandako pilota izan genuen guk, esponjazkoa, goxo-goxoa".

## 'PELOTA ENVENENADA' K HARRAPA EZ ZAITZAN

'Pelota envenenada' esaten zioten jolasean ere asko jolasten zuten. "Lurrean arraia bat egin eta haren atzean jartzen ginen. Hiru obalu izaten ziren lurrean marratzuta eta arraia baino atzerago, pertsona bat. Pertsona horrek pilota bota eta arraia atzean zegoenetako batek eskuz jotzen zuen. Bitartean, pilota jo zuena obaluz obalu korrika abiatzen zen eta pilota hartu behar zuenak, obalura ailegatu aurretik pilotarekin jo egin behar zintuen. Lortzen bazuen, jokoa galdu egiten zenuen eta kanpora ateratzen behar izaten

zen. Lortzen ez bazuen, berriz, libre geratzen ziren". Korrika bakarra zebilenean, errazago izaten zen jotzea baina, hiru jartzen zirenean, zein mugituko zen eta zeini tira behar zion pentsatuz, zailagoa izaten omen zen. Bukaerara hiru pertsona iristen ziren arren, bakarrik irabazten zuen. Mojen eskolako patioan asko jolasten zuten joku horretan baina, baita beste edozein tokitan ere: "Nonahi jolasten genuen. Bost, sei edo hamar lagunek... Elkartzten ginen guztiek". Pilotaren eta kantuaren arteko jolasak ere

uztartzten zituzten: *Con una mano, con la otra mano, al te-pe-te. Atrás y adelante, con una rodilla, con la otra rodilla, a la redondilla, un besito adelante*. Pauso guztiak pilota airean zegoen bitartean egin behar zituzten. Esku batekin aurrera, bestearekin ondoren. *Te-pe-te* esatean, txaloak egiten zituzten. Atzera eta aurrera gero. Belaun batekin lurra jo aurrera, bestearekin gero. *Redondilla* esatean, buelta eman eta aurrera pausoa eman ondoren, musua eman bukatzeko. Ez da abildade gutxi beharko, ez horixe!

## BALOIAK LARRUZKOAK, PITOIDUNAK

Egungo haurrek eta gazteek, denek baloia-ekin jolasten dutela ikusten dute hizlariek. Orduan ez zen baloirik; zuenak, berak egindako pilota zuen baina, baloirik, oro har, ez. Lehen baloia Agustin Aizpuruak ekarri zuen herrira eta denak haren atzetik ibiltzen ziren, hura noiz etorriko zain. "Larruzkoak ziren baloi haiek. Haizez betetzeko pitoidunak. Trentza moduko zintzilikario bat zuten lotzeko. Behin putzutakoan, barrura sartzen zitzaion muturra. Bustitzen zirenean berebiziko pisua hartzen zuten, ez ziren hemendik horraino ere ailegaten" diote, tarte labur-laburra irudikatuz. "Bazterrera joan eta haizez betetzen ibiltzen ginen. Putzutan edo lokatzetan sartuz gero, aze kuxidadeak izaten ziren". Kolore ilun-ilunekoak ziren lehen

baloi haiek. Kontu handiarekin ibili behar izaten zuten gainera, "kopetarekin jotzeko beldurrez ibiltzen ginen. Jostura hark harrapatuz gero, burua ebaki igual!". Futboleko jokatzeko ohitura handirik ez zen orduan. Hala ere, hainbat gazte ibiltzen zen lagunene edo auzokideen artean. "Zubiaurre baseritik plazara bitarteko gazteak batetik, eta plazatik elizara bitartekoak bestetik; bi talde osatzen ziren auzo arteko txapelketarako. Futbol partidak plazan jokatzen ziren. Ez geneukan porteriarik, noski, eta norberaren jertseekin moldatzen ginen" gogoratu du Jabierrek. Elizondo futbol taldea deitzen zioten Jabierrek eta bere lagunek osatzen zuten taldeari; izena, elizaren ondoan asko jokatzen zutelako zetorkien. Aldizkariaren azaleko irudiko

lagunak ziren Elizondoko taldekideak: Goian, Jose Luis Iribarren, Juanito San Sebastian, Anjel Egiño eta Frantzisko Mendiluze. Erdian, Jabier Berasaluze, Anjelito Ugarte eta Juantxo Garmendia. Behean, Antton Lertxundi, Ramon Ugarte eta Benantxio Lertxundi.



**Pello Iribar**

*"Kopetarekin jotzeko beldurrez ibiltzen ginen. Jostura hark harrapatuz gero, burua ebaki igual!"*

## LAU IZKINATARA, ZUHAITZ ARTEAN

Zuhaitz artean ere jolasten zuten. "Bost lagun, lau zuhaitzen artean jarri eta batetik bestera abiatzean, erdikoak harrapatu egin behar zintuen". Jolas horretarako ez zuten pilotaren beharrik izaten, "zuhaitzez zuhaitz igaro behar zen batetik bestera baina, erdikoak harrapatzen bazintuen,

erdian geratu behar zenuen". Jolas horretan aritzeko leku egokia zein zen argitu du Isabelek, "Villabonako Saizar etxeak zituen lau zuhaitzak oso onak ziren jolas horretarako. Lauki polita osatzen zuten. Hantxe ibiltzen ginen batetik bestera korrika pasaz".



**Isabel Beraza**

*"Villabonako Saizar etxeak zituen lau zuhaitzak oso onak ziren jolas horretarako"*

## SOKA-SALTOAN, SALTOKA-SALTOKA

Gehien jolasten zuten jolasetako bat soka-saltokoa zen. Kamioan zehar, Andoaineraino joaten ziren soka-saltokoa. Etxeberrieta auzoan futbol partida ikusi eta buelta berriz saltokoa, txandan-txandan. "Kotxea datorrela!!" norbaitek buila egiten zuenean, baztertera etorri eta jarraitu egiten genuen gero". Era askotara ibiltzen ziren sokarekin: Sokari fuerte edo lasai eraginez, kale egin arte batzuetan, salto kopuru jakin bat egin bezetan. Banaka edo binaka aritzen ziren saltokoa, txandakatu edo segidan. Kanporetan ere ibiltzen ziren; kale egiten zuenak, galdu egiten zuen jokoa eta kanpora atera behar izaten zuen, jokoa utziz. Orduan jolaserako kanta ia guztiak gaztelaniazkoak

ziren. 'Soy la reina de los males' kantuan abesten zituzten hitzak gauzatu egiten zituzten saltokari ziren bitartean. Hizlariak gogoan dute kantua: *Soy la reina de los males/ un día no puede ser/ eché el pañuelito al suelo/ y después a recoger. Zapia lurrera bota eta gero, harrapatu egin behar izaten zen, sokarik galdu gabe. Kantuak jarraitu egiten zuen "eta segi egin behar zenuen zure zapiarekin bukatu arte" dio Maritxuk: Pañuelitos, pañuelitos/ guardaditos en el bolsillo/ que no bailarás/ cojita con un piee. "Eta salto haiek hanka baten gainean egiten genituen". Kantatu, soka ematen ari zirenek kantatzen zuten. Saltokoa ari zenak, berriz, kantuak esandakoa egin behar zuen. Hori bai, salto-*



ka ari zena, nahastu edo galdu egiten bazen, soka ematera igarotzen zen. Era berean, 'Al cocherito lere' kantuarekin ere nahikoa salto egindakoak dira hizlariak. Salto eta makurtu, salto eta makurtu... Kantu hori gauregungo haurrek ere abesten dute. Egun, badu euskarazko bertsoia ere.

## A LA KINKIRRIÑERA ETA ZUBIRI-ZUBIRI

Lagunak eskutik lotuta, korroa osatu eta saltokoa, norberaren izena entzundakoa jiratzea ez da egungo jolasa. *Lumaneko* kideak ere jolasten zuten 'Ala kinkirriñera' n. *A la kinkirriñera/ a la xamurrera/ plaza berriko/ jira hadi beste aldera.* Partaide guztiak buelta ematen zutenean, elkarri

ipurdiaekin joka ibiltzen ziren. 'Zubiri-zubiri' jokoak ere ez du azalpen handirik behar, egun bezalaxe jolasten zuten: *Zubiri-zuriri/ nungo de nungo/ nungo alkate zeradel/ Frantziako errege baten/ seme alabak geradel. Hurrun-hurrun/ zubi hontatik pasatzen dena/ hemen geldituko dena/ hemen geldituko*

## TABAKETAN, PILOTAREN LAGUNTZAZ

Garai hartako umeek eta, batik bat, neskek, tabaketan jolasten zuten, gehien. Orain ez da apenas jolas hori ikusten baina, hizlariak oso gogoko zuten orduan. Ardiak, ahuntzak, ahariak edo arkumeak hankean duten hezurra da taba eta animalia horietakoren bat akabatutakoan, gogoz jasotzen zituzten. Tabak izateko aukera, ez zen orain adinakoa. Hori dela eta, egokitutakoan, ondo gordetzen zituzten hezurtxoak. Behin eskuratutakoan, betirako izaten zirela gaineratu du-



Pakita Lasa

"Oso joko ona zen. Argi ibiltzeko lagundu egiten zuen"

te. "Hezurrari, taba esaten genion guk. Gerora kurkuluxa esaten bazioten ere" argitu du Pepitak. Tabak, ahal zutenek, margotu ere egiten zituzten, "izugarritzko ilusioarekin, gorritz, berdez edo geneukan kolorez margotzen genituen, ahal genuenean. Denak ez, kolorezko tabak zituena, distinguitua izaten zen, gero!". Lau tabekin eta pilota txiki batekin jolasten zuten tabaketan, "abilak ginen orduan, ene!". Poltsan, zorroan itxita, gustura ateratzen ziren kalera tabekin. Arkumeen tabekin jolasten zuten gehienetan, "arkumearen hezurra ez da ondo egin egoten, gaineko azala joan egiten baitzaio. Ahariarenak hobeak ziren, hezurrak ondo osatuta baitzuten". Gehienetan, hala ere, arkumearekin ibiltzen ziren. Jolasteko modua ere azaldu dute, pilota gora bota eta airean zegoen bitartean, tabak zutik jartzen zituzten. Tabak zutik jarri eta pilota es-



jokatzen zuten. Hamabi puntura iristean, jokoa bukatzeko, gurutzean jartzen zituzten lau tabak eta "kraxkitin, kraxkitin, arrosa, krabelin" esaten zuten. Hori guz-

tia pilota airean zegoen bitartean, noski! Pilota botatzerakoan, eskuan izaten zituzten lau tabak eta, pilota airea botatzen zutenean, orduan botatzen zituzten tabak

ere. "Tabek alde batetik zuloa dute eta desiatzen egoten ginen tabak, zuloaren aldetik gera zitezten; bestela, zutik jartzea, gehiago kostatzen baitzen".

## TXINGOKETAN, MARMOL PUSKA HARTUTA



Pepita Lasa

"Harriak marra ukitzen bazuen, hankarekin disimuloan, laukiaren barrura sartzen saiatzen ginen"

Karoliña eta teila puskek inarrazten zuten txingorako taula lurrean. Bi eratara inarrazten zituzten laukiak; gurutze itxurako taula batetik, eta azken laukia borobilduta zuena, bestetik. Gehienetan zazpi lauki inarrazten zituzten. Harria bota eta hanka baten gainean egiten zuten salto, harria zegoen laukia ukitu ere egin gabe.

"Marra zapalduz gero kalera eta harriak laukia ukitzen bazuen, jokaldiak ez zuen balio". Txingoan jolasteko arauak zorrotzak zirela aipatu dute. Baina, orduan ere, tranpa txikiak egiten zituzten, "harriak marra ukitzen bazuen, inor konturatu gabe, hankarekin disimuloan, laukiaren barrura sartzen saiatzen ginen" argitu du Pepitak. Leku askotan jolasten zuten txingoketan; mojen eskolan, Amasako eta Villabonako plazan, arkupetan, eliz atarian, harri-losazko espaloietan eta kamioan ere bai "orain adinako automobilik ez zen eta". Isabelek, etxeko eskaratzean ere ibiltzen zirela esan du eta Pepitak, etxeko sukaldean ere bai. Txingoketan, alpagata ugari urratu zutela ere aipatu dute, "beti alpagatak konpondu eta konpondu. Nonbait galipota bigun samarra ikusten



bagenuen, han igurtzi egiten genituen, zorua pixka bat gogortzeko". Txingoan jolasteko harria ere ondo aukeratzen zuten, ahalik eta politena aurkitzen saiatzen ziren. Askotan, Portu lantegiaren ondora joaten ziren marmol pusken bila. Fabrika hartan, losa eta marmola lantzen zituzten, baldosak egiteko.

## BULEKETAN, POTE-POTEKA ETA HARRAPATZEN

Buleketan edo gordeketan ere jolasten zuten ume haiek. Bat hogeiraino kontatzen geratzen zen bitartean, gainerakoak gorde egiten ziren. Haiek non ziren, aurkitu egin behar izaten zen gero. Gordetakoren batek 'bule' esaten bazuen, berriz ere, berberak kontatu behar izaten zuen, "'zu berriz betetzera'. Betetzea esaten genion kontatzeari". Betetzen zuenak, norbait harrapa-

tzan bazuen, 'bule' edo 'fallo' eta haren izena esaten zuen. Pote-poteka ibiltzea ere gazte haien gogoko jolasa zen. Tomate pote hutsak harrika bota eta bien bitartean, gorde egiten ziren gaztetxoak. Potea zenbat eta urrutiago bota, orduan eta denbora gehiago izaten zuten gordetzeko. Hogeira edo berrogeira zenbatzea egokitu zitzaionak, zenbatzen amaitu eta gero, potearen

bila joan eta gordetakoak aurkitzea izaten zuen lana. "Iluntzetan jolasten genuen asko pote-poteka". Bestalde, batak bestea korrika harrapatzea ohiko jolasa zen orduan ere. "Arropak puskatuz ibiltzen ginen. Ia-ia harrapatu zenuelakoan, kolpea egin eta konturatu gabe, askotan puskatzen ziren arropak. 'Begira zer egin didazun!' erdi negarrez, behin baino gehiagotan".

## UZTAIA, SEGI-SEGIKA

Neskaren batzuk ere bai baina, mutilak ibiltzen ziren, batik bat, uztaiarekin jolasean. Bizikletaren llanta baldin bazen gustura, bestela, barriñoiarekin, garai hartako egurrezko baldearen ipurdiko aroarekin ibiltzen ziren. Alanbreari forma eman eta harekin bultzatuz, gustura asko gainera! "Iruaraino igual joaten ginen uztaiarekin. Kotxerik ez zen pasatzen eta!". Joko haren muina, uztaia

zuzen ibiltzea zen. Ez zen hain erraza, ez. Hala ere, bazituen bere trukuak, "aldapan behera bazindoazen, alanbreari buelta eman eta frenatu egiten zenuen. Kirtenaren muturreko alanbreak, 'u' moduko bat egiten zuen eta frenatu behar izanez gero, buelta eman eta ttak, geratu egiten zen". Ez frenatzea erabakiz gero, abiada bizkorrean ibili behar izaten zuten.



## TXORROMORROKA, BATA BESTEAREN GAINEAN

Lau lagun makurtuta jartzen ziren, eskuekin batak bestea eutsiz, animalia baten gisan. Jolaseko gainerako kideek, *Txorromorro-piko-tallo-ke. Maria subiré?* esaten zuten eta makurtutakoek, *Sube!* esatean, makurtutakoek bizkar gainera salto egiten zuten kide batek. Salto egin zuenak, kantuan jarraitzen zuten: *Si me hubieses dicho dosedo tres...*, jolasten ari zirenen kopurua- *más o menos no estarías tanto tiempo ahí abajo.*

Bizkarrean joz, *De colín, de colán, dela dela dela dan, del palacio a la cocina, cuantos dedos hay encima?* esan eta makurturta zegoenak, asmakizuna argitu behar zuten. Izan ere, behatz bakoitzak, txorro, morro, piko, tallo edo ke izena zuen. Makurtutakoek gainean zegoenak, behatz bat altxatzen zuten. Azpikoek zein behatz altxatu zuen asmatzen bazuen, libratu egiten ziren. Bestela, berriz ere behean egotea egokitzen

zitzaien. Horrela, segidan, batak bestearen atzetik egiten zuen salto.



## KANIKAK, LURREZKOAK ETA KRISTALEZKOAK

Garai bateko limonada botilla txikiak barruan izaten zuten kanika, "hura izateko desiatzen egoten ginen". Kanika mota ezberdinak zeuden, koloretako kristalezkoak ziren gehien balio zutenak, neurri ezberdinetakoak zeuden, gainera. Lurrezkoak ziren merkeenak. Limonada botilletan etortzen zirenak, kristalezkoak ziren. Kanika haren presioaz ixten zen botilla eta kanika izatekotan, botilla puskatu egin behar izaten zen. Lurrezko kanikak, denak tamaina berekoak izanagatik, kolore ezberdinekoak



Maritxu Gonzalez

*"Batzuk gustura joaten ziren irabazitako kanikekin etxera. Galdu zutenak ez hain pozik*

ziren, batzuk marroiak, besteak urdinak... Baina, prezio bera zuten. Ondo jotako kolpe bat nahikoa izaten zen kanikarik gabe geratzeko. Bi eratara jolasten zuten kaniketara: Gehien jolasten zuten modua, kanika bota eta besteak harrapatzea izaten zen. Kanika joz gero, 'kixku' esaten zen. Kanika jo eta esku harraren tartean geratzen baldin bazen, berriz, 'kixku eta harra'. Azken aukera hori gertatuz gero, jo zuena-

rentzat izaten zen kanika. Harra egitea, lehen behatzetik azkenekora dagoen tartean kanika sartzea izaten zen. Behatzak ahal zen bezala luzatzen ahalegintzen ziren, lortzen ez bazuten, bai baitzekiten zein zen ordaina: Kanika bat ez, bi eman behar zitzaizkion 'kixku eta harra' egin zuenari. "Golfjokuan bezala, kalkulatu egin behar zen kanika hemendik hara, gutxi gorabehera, botatzen. Indar handiegia emanez gero, nahiz eta 'kixku' jo, zabaldu egiten ziren. Gu, 'kixku' egin bai baina, kanika ahalik eta gertuen geratzen saiatzen ginen" azaldu du Pellok. Batik bat, modu horretan jolasten bazuten ere, txuloketan ere aritzen ziren tarteka. Lurrean zuloa egin eta kanika bertan sartzea izaten zen jolasaren muina. "Kaniketan dena joko da. Batzuk gustura joaten ziren irabazitako kanikekin etxera. Galdu zutenak ez hain pozik" dio Maritxuk.

## KROMOAK ETA TXAPAK

Hizlarietako batzuek oso gogoko zuten kromoekin jolastea, besteek ez horrenbeste. Txokolateak ekartzen zituen kromoak, "batzuetan kolore batekoak eta bestetan, besteak". Eskuarekin joz, buelta ematen saiatzen ziren. Galtzen zuenak, kromoa eman behar izaten zion irabazleari. "Hori bai, hori horrela izaten da". Kaxatxo batean gordetzen zituzten kromoak eta kaletik etxera, gehiagorekin edo gutxiagorekin etortzen ziren. Txapetan jolasteko ohitura, berriz, geroago etorri zela aipatu dute hizlariak. "Orduan ba ote zen txaparik?" ez dute oso garbi gogoratzen. Txapaketan ez

baina, txanponekin, zentimoekin, jolasten zutela adierazi eta erakutsi egin du Pellok. Txanpona paretaren kontra botatzen zuen lehenak eta hurrengoak tiratzen zuenean, lurrean, ondoko txanpona esku-harrarekin harrapatzea jolasten zuten. "Gogoz tiratzen ziren txanponak, intentzioarekin". Harra-ekin harrapatzen zuenarentzat izaten zen zentimoa. Joko horretan ere ez zen txantxarrik izaten beraz, "itxoin pixka bat" esan eta, behatzetatik tiraka aritzen ginen ahalik eta luzera handiena har zezaten". Lehengo zentimo txikiarekin jolasten zuten, "zeinek izaten zuen ba orduan hamar zentimokoa?".



## MAKIL JOLASAK, HARRI KOZKORRAK ETA PLATERA PUSKAK

Lurrean makilekin ere aritzen ziren jolasean, "buelbaka, hara eta hona arrastaka ibiltzen zuen batek makila eta gainerakoek, salto egiten genuen haren gainetik". Saltoa egiterakoan, huts egiten zuenari egokitzen zitzaion hurrena makila bueltaka ibiltzea.

"Soka-saltoaren antzera, huts egiten zenean galdua". Zuhaitzak botatzen zituztenean, lurrean topatzen zituzten adar mehenekin jolasten zuten. Orduan izaten zen bolada. Harri kozkorak eta platera puskek ere baliatzen zituzten jolaserako. Hoge bat harri

kozkor edo platera puska eskuetan hartu, gora bota eta erortzerako, eskuaren ifrentzuekin harrapatu behar ziren. Lurrea erortzen zirenak, eskuaren gainekoak bota gabe jaso behar ziren lurretik. Puskaren bat erortzen bazen, galdu egiten zen jolasa.

## TXIBA, YO-YO A ETA DIABOLOA

Txibarekin ere behin baino gehiagotan jolastutakoak dira solaskideak. Txiba bota eta lurrean bueltaka ibiltzea ez zen lorpen makala. Gehiago saiatzen zirenak, eskuan ere hartzen zuten. Txiban ere, iaioak asko ziren. Egurrezkoak ziren txibak eta burnizko muturra zuten; txuriak gehienak, horiak gutxiago, "mutur horia zutenak inportanteak izaten ziren, garestiagoak ziren eta!". Lokarriarekin bueltatzen zituzten, egungoak bezalaxe. Orain, ume gutxi ikusten dute txibarekin jolasean, "orduan txiba zuenak, ondo zaintzen zuten. Ez pen-

tsa guztien eskura zegoenik!". Gaur egungo batere antzarik ez zuten yo-yoekin ere jolasten zuten. "Botoiekin egiten genituen. Bi botoi handi elkarrekin josi eta, hariarekin inguratzen genuen. Baldarra-koak ziren, motelagoak baina, ibiltzen ginen bai". Ez zuten abiadura bizia hartuko baina, norberak egindako jolasekin ibiltzeak ez du meritu gutxi! Txiki-txikitan ez baina, pixka bat kozkortutakoan, diaboloarekin ere jolasten zuten. Tornillo batekin lotutako gomazko oinarria gora bota eta egurrekin eutsitako sokarekin harra-

patzen zuten beherakoan. "Oraingoak egokiagoak dira. Gureak torpeak ziren oso".



## BIZIKLETA, KUBIERTARIK GABEA

Umetan ez zuten bizikletarik izan hizlariak, "herrian ez zen inor bizikletan ikusten, orduan ez zegoen bizikletarik". Zizurkildik, Asteasutik edo inguruko herrietatik etortzen zirenak, egun bizikletan edo motoan egiten duten bezala, oinez etortzen ziren lehen, "zeinek zuen bizikleta edo motoa? Inork ez. Gaur egun ibilbide luzeak diruditenak, oinez egiten genituen lehen, normal-normal". Pellok soldadutzara joan arte, ez zuten ezagutu bizikletarik etxean, "nik ez nuen ezagutu baina, gure etxean,

*Muttua* bizi izan omen zen lehen, *Perratzaileneko Muttua*. Hark, Peugeot markako hiru bizikleta ekarri omen zituen Frantziatik. Igandetan alkilerrean jartzen zituen. Bizikleta haiekin ikasi omen zuten Villabonan, txanpona zutenek. Nik ere haietako batekin ikasi nuen urte dezente geroago". Gazteagotan bai, bizikleta bakanetan txandaka ibiltzen ziren. "Nik bizikletan ibiltzen, neronek bakarrik, llantarik gabeko bizikletan ikasi nuen, kubiartarik gabekoan, anaiarenean" azaldu du Maritxuk. Pakita

eta lagunak, Sacem aldera joaten ziren bizikletan ibiltzen ikastera, bizikleta bakanetan txandaka ibiltzen ziren.



## TIRAGOMAK ETA HERRI KIROLAK

Txoriak harrapatzeko erabiltzen zituzten batik bat tiragomak. "Nahikoa arrisku- tsuak ziren. Burdinezko zati txikiak jaurtzen genituen, gaizki apuntatuz gero, aberi handiak egin zitezkeen". Zaku-kar- reran, lokotsak biltzen eta antzeko jola-

setan baserrian bizi zirenak ibiltzen ziren, batik bat. Kulunpioak ere baserri gehi- netan izaten ziren, zuhaitzen adarretatik zintzilik, "bi soka zintzilikatzen ziren adarretik eta soka hark minik ez egiteko, zakuren bat-edo jartzen zen esertzeko.

Arriskutsua ere bazen, sokak joan-eto- rrian, egurra gastatu egiten baitzuen. Eserita zegoena ez zen konturatu ere egiten, ordea. Gainera, izugarrizko abiada har- tzen zuten, zuhaitzari buelta emateko mo- duko indarra".

## ANTZINAKO JOLASAK ETA EGUNGOAK

Hizlariak, euren jolasteko moduak eta egungoak oso ezberdinak direla azaldu dute, "oraingo umeek ez dakite jolasten. Denetik dute eta aspertu egiten dira. Guk, berriz, ez geneukan ezer eta edozer gauzarekin ibiltzeko ilusioa genuen. Ez genuen asperetzeko denborarik izaten. Makina horiekin ibiltzen dira orain, bakarka, etxean sartuta. Gu kalean ibiltzen ginen inguruko lagunekin batera. Gauza gutxi nahikoa genuen pozik ibiltzeko. Ostegun arratsaldetan eskolatik jai izaten genuenez, Otsabira joaten ginen kantuan. Hango errekan hankak busti,

bokadilloa jan, txalburu-harrapaketan ibili eta kontentu etxera. Berebiziko gauza egin genuela iruditzen zitzaigun". Villabonako eskola publikoetan, eskolaz kanpoko ekintzak antolatzen zituen apaiz bat bazen, herriko mutikoez oso begi onez ikusten zutena, "on Salbador apaizak, inguruko herrietara irteerak antolatzen zituen ostegun arratsaldetan; Zizurkilera, Alkizara edo Anoetara. Pilota edo futbol txapelketak izaten ziren bertan. 40-50 bat mutiko joaten ginen, bakoitza bere bokadilloarekin. Partida jokatu, merien datu eta buelta etxera" pozik baino pozikago,

gainera. Gaztetan asko abesten zutela ere gogoan dute, "asko abesten genuen gaztetan eta, oro har, asko abesten zen lehen. Leihoak irekita, etxeko lanak egiten ari zen emakume asko aritzen zen kantuan. Kalean zindoazela, asko aditzen zen etxeetatik zetorren kantua". Jolasetara itzuliz, orduko jolasen kantu ia guztiak gaztelaniaz ziren. "Batzuk gehiago konturatuko ziren baina, orain konturatzen naiz ni zein esanahi zuten letra haiek. Kantatu egiten genuen baina, zer esaten genuen jakin gabe. Ai ama!" esanaz amaitu du Maritxuk.



Jabier Berasaluze



Pello Iribar



Isabel Beraza



Pakita Lasa



Pepita Lasa



Maritxu Gonzalez

Iribarrea ahoan gogoratu dituzte ume eta gaztetxo garaiko jolasak, *Lumaneko* lagunak. Aspertzeko tarterik ez zuten izaten eta beharrak erakutsita, egun baino gehiago lantzen zuten irudimena. Garrantzitsua da hori, ezbairik gabe. Agian garai bateko jolasak egunera ekartzeko gogoia piztuko zitzaion norbaiti. Aurrera ba!

## ...ETA HURRENGOAN ZER:

**K**irola eta apustuak izango dira mintzagai zazpigarren zenbakian. Erreboteaz joan zen apirilean hitz egin genuen arren, futbolearen edo txirrindularitzaren ere, amasarrek eta villabonatarrek abilak zirela ezin ahaztu. Herri-kiroletan ere ez ziren atzean geratzen, ez horixe! Aizkora, harrijasotzea... Ohiko frogen artean, idi-demek tradizio handia zuten, besteak beste. Villabonako plazaren erdian harrizko bidea zegoen idiak igartzeko. Baina amasarren eta villabonatarren artean izaten al zen bestelako apusturik? Horren guztiaren berri jakin nahi izanez gero, ez galdu ekaineko zenbakia irakurtzeko aukera. Ordura arte, segi ondo!



### ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur B. azkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitiz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400

### EKOIZLEA



### BABESLEA



Eusko Jaurilaritza Kultura Saila